

**JUSTIFIKATZEKO ETA AMAIERAKO % 30AREN ORDAINKETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

*(Dirulaguntza eman eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da dirulaguntzaren justifikazioa, betiere diruz lagundutako aldia amaitu bada. Diruz lagundutako aldia amaitu ez bada, amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean entregatu beharko da)*

**1. IV. eranskina. Amaierako justifikazioa beteta.**

**2. Honi dagokion dokumentazioa:**

- Kontratatutako pertsonaren "Afiliatu baten lan-bizitzaren txostena", laguntza eskatzen den aldian eta lanaldian enpresan jarraitu izana egiaztatzen duena.
- Kontratatutako pertsonaren Kotizaziorako Datuen Txostena – Besteren Konturako Langileak (KDT), justifikazio-aldia barne hartzen duena.
- Laguntzaren xede den aldian zehar diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia eta horiek kobratu izanaren bankuko egiaztagiria (edo bi aldeek sinatutako nomina).
- Kotizazioaren likidazioaren ordainagiria, langileen nominen zerrenda eta haien ordainketaren egiaztagiriak.

**DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIA:**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko.

Gainera administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu (aurka eginez gero, "Eranskina\_Datuak kontsultatzeko oposizioa" bete); kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Getxoko Udalak zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau:

- Getxoko Udalarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.